

1978-IX-8

Bergarako Mintegian, 1978.eko Irailaren 8an, goizeko 12 t'erdietan bildu dira: L. Villasante buru delarik eta J. Haritschelhar buruordezko, honako euskaltzain osoak; J.L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigaray, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre, E. Knörr, F. Krutwig, L. Mitxelena, J.M. Satrustegi, eta A. Zavala, J. San Martin idazkari dela.

X. Diharce, P. Larzabal eta J.M. Lojendiok ezin etorria adierazi dute, beren ordezkaritza eta, botuetara erabakirik hartu behar balitz, beste honako euskaltzain hauen eskuetan —P. Lafitte, J. Haritschelhar eta A. Irigaray— uzten dutela beren ahala, aditzera emanez.

Bergarako Udalbatzarrari, eta U. N. E. D.-eko zuzendaritzari, bereziki, eskerrak ematea erabaki baita ere Biltzar hau eratzten lagundu diguten guztiei.

Euskaltzainburuak hitz batzuk zuzendu dizkie batzarkideei bilkura honek duen garrantziaz eta Euskaltzaindiaren arauak gogoraziz. Ondorean Biltzar Nagusian erabili diren gaiez erabaki batzuk hartu beharra, batez ere euskararen batasun bideari jarraitzeko eta irakasle eskoletan euskara zar dadin eskaria egiteko.

Batzordetxo bat izendatzea erabaki da batzarreko hitzaldi eta elkarriketak magnetofonotik jaso eta publikatzeko.

1923.eko Irailaren 8an, duela 55 urte Euskaltzaindiak Donezteben egin zuen batzarrean eman zela L. Eleizalde Bergararraren hilberria.

Ondorean honako agiri hau aho batez onartu da:

Euskaltzaindiak bere VIII. Biltzarraren ondoan adierazpen hau agertzen du:

1. Biltzarrerako egin diren azterketei esker, garbi ikusi du duela hamar urte Arantzazun eskainitako batasun asmoak eta arauak izan duten baietza eta eragina.
2. Hori horrela delarik, orduan hartu zen bidetik, euskararen batasun lanak aztertzea, sakontzea eta aintzinatzea nahi du.

3. H letrari buruz iparraldeko zazpi euskaltzainen lana baliozkoa iritzirik, oinarritzat hartzen du. Horretarako hainbat lasterren argitasun zehatzagoak emango ditu.
4. Bustiduren grafia alde batetik, deklinabidea eta erakusleen formak, bestetik, aski ikertuak daudelakotz, erabakiak hartzeko premia ikusten.
5. Euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz.
6. Gure irakaskuntzaren behar gorriaz jabeturik, "Ministerio de Educación y Ciencia" eta "Ministère de l'Éducation" direlakoei eskaria zuzenduko die: Irakasle prestakuntza-eskoletan biderik zabalenak eman ditzaten, beharrezko baita:
 - a) Edozein sailetan, eta maila guztietan ikasten ari dena euskaraz irakasteko gai bihur dadin eta.
 - b) Euskal Herriko eskola horietan guztietan sor dadin Filologia Euskal saila.
7. Batasunerako bidean ari diren Erakunde eta Elkarte guztiekin premiazko harremanak indartzeko nahia aditzera ematen du.

Euskaltzainburua
Luis Villasante

Idazkaria
Juan San Martin